

GURE IDEIA

Gure ideia sortu baino lehen, enpresaren kanpo zein barne ingurunea aztertu dugu, modu horretan gure negozio-ideiaren erabilgarritasuna eta errentagarritasuna neurtu ditugu eta enpresa sortzerako orduan segurtasun gehiagorekin hasi gara.

Gelan, brainstorming bat egin ostean erabaki genuen zein izango zen gure proiektua; **Itzultzaileak eskaintzen dituen aplikazioa**, hain zuzen ere. Negozio eredu honekin jada existitzen den zerbitzu bat berriztu nahi izan dugu, gaurko gizartera egokituz. Itzultzaile ikasketak dituzten pertsonak kontratatuko ditugu eta kalitateko zerbitzu bat eskainiko dugu, prezio erakarkarri eta erabilerraztasun batekin.

Hurrengoa izango da gure negozioaren funtzionamendua; demagun, enpresa edo pertsona batek ekitaldi bat zein ekintza bat egiteko (bai bere lanean, zein bere bizitza pertsonalerako) itzultzaile bat behar duela, gure aplikazioan sartu eta behar dituen ezaugarriak zehaztuz, guk egokia den itzultzailearen kontaktua emango diogu. Hainbat hizkuntza ezberdinetan hitz egiten duten itzultzaileak ditugu eskuragarri eta bezeroak nahi duen zerbitzua kontutan izanik, itzultzaileak egingo duen lana ezberdina izango da. Guzti hau hurrengo puntuetan hobeto azalduko da.

Behin ideia erabaki ostean, gure enpresaren izena zehaztu behar izan dugu, hurrengoa aukeratu dugularik: **“SEMU TRANSLATORS”**. Gure izenaren lehenengo hitzak hartu eta ordena bat jarraituz batu ditugu, konbinazio hau lortu arte. Guretzako garrantzitsua da enpresa bakoitzeko kideak presente egotea enpresaren izenean, modu horretan bezeroei hurbiltasuna eskaintzen diegulako. Gainera, bezeroek ikasteko izen erraza da eta hizkuntza eta herrialde ezberdinetan gogorarazteko modukoa.

Enpresaren logoari dagokionez, enpresa bezala zer egiten dugun adierazi nahi izan dugu, irudian pertsona baten silueta jarriz zirkulu baten barruan, zirkuluak munduan existitzen diren edozein hizkuntzak adierazten dituelarik. Koloreari dagokionez, berdea itxaropenaren kolorea hautatu dugu, modu honetan, jendearengan konfiantza eta arazoak konpontzeko erraztasuna adierazten dugularik.

Enpresarentzako Slogan bat sortzea ideia ona dela iruditu zaigu eta hurrengoa pentsatu dugu; **“Translators are fundamental elements”**, ingelesez izatea egokia ikusten dugu, munduan zehar herrialde eta pertsona orok ulertu dezan eta gure zerbitzuak kontratatu ditzan egokia delako.

